



MARIENEA

Basauriko Emakumeen etxea
(Kareaga Goikoa 54) 94 612 41 00
marienea@basauri.net

3. ZBKIA

MARIENEA BERRIPAPERA, 2013KO IRAILA



ErakuskerAK

MariENea

hitZAldak

Ekintzak

AilerAK



AURKIBIDEA



**EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA
ESKOLA.....3.ORR.**



**EKINTZA HAUEK AURRETIKO IZEN EMATEA. PARTE
HARTZEAREN KONFIRMAZIOA ETA DAGOKION
MATRIKULAREN ORDAINKETA ESKATZEN DUTE.**

**BASAURI BELDUR BARIK HERRIA - GAZTEEI
ZUZENDUTAKO TAILERRAK.....4.ORR.**

INFo+: beldurbarikbasauri@gmail.com



GAZTEEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK

**ERAKUSKETAK ETA ERLAZIONATUTAKO
EKINTZAK5.ORR.**



BISITA ETA PARTE HARTZE LIBREA

**PUBLIKO GUZTIEI ZUZENDUTAKO
EKINTZAK7.ORR.**



AURRETIKO IZEN EMATERIK GABE

**EGUN ESANGURATSUAK ETA
TOPAKETAK.....8.ORR.**

Basauriko Emakumeen etxea (Kareaga Goikoa 54) 94 612 41 00

marienea@basauri.net

[facebook](#)

Marienea BASAURI

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA



INFORMAZIO OROKORRA: Hurrengo ekintza hauek aurretiko izen ematea, parte hartzearen konfirmazioa eta dagokion matrikularen ordainketa eskatzen dute.

MARIENEA



JENDAURREAN HITZ EGITEKO ESTRATEGIAK

Tailer hau **EUSKARAZ** da.

Formatzailea: Esti Redondo Tirado

Saio Kopurua: 7 (16 ordu guztira)

Datak: asteartetan, 2013ko urriak 22tik abenduak 3ra
(biak barne)

Orduetgia: 18:00 - 20:00

Matrikula: 10 euro

Historikoki gizonezkoak esparru publikoan garatu izan dira eta emakumeak, berriz, esparru pribatuan. Banaketa honek emakumeontzat zailtasun berezi batzuk suposatzen ditu jendaurrean aritzerakoan. Zailtasun horiek aztertu eta landuko ditugu, gainditzeko. Badira gainera, hainbat teknika jendaurrean aritzeko lagungarriak. Teknika horiek landuko eta praktikatuko ditugu..



AHOTS TAILERRA

Formatzailea: Zahira Montalvo Herrero

Datak: Azaroak 9 eta 10 (larunbata eta igandea)

Orduetgia: Azaroak 9, larunbata, 10:00 - 14:00 eta
15:00 - 18:00 eta azaroak 10, igandea, 10:00 - 13:00

Matrikula: 10 euro

Tailer honen abiapuntua, gure gorputza ahots tresna bezala ezagutzea eta gure ahotsen jabekuntza kolektiboa bizitzea da. Helburuetariko batzuk dira: gure ahotsaren erabilpenaren kontzientzia hartu, eskura ditugun tresnak bereganatu gure ahotsa hobetzeko eta era osasuntsu batean zuzentzeko, gure gorputza tresna eta oinarri bezala ulertzea ahoskera egoki baterako eta norbanakoaren zein taldearen ahoskera hobetu. Gure egunerokotasunean edota arlo profesionalean ahotsaren erabilera egokituko dugu, ahotsaren erabilera ona edo txarra eragiten duen anatomia ezagutuz eta ahoskuntza aparatuen oinarrietara hurbilduz. Azkenik, testuen irakurketaren bitartez ahoskera landu eta ahots monotonotik kanpo doinu aberasgarriagoa bereganatuko dugu.

INFORMAZIO OROKORRA: Hurrengo ekintza hauek aurretiko izen ematea, parte hartzearen konfirmazioa eta dagokion matrikularen ordainketa eskatzen dute.


ZORU PELBIKOA INDARTZEKO TAILERRA

Formatzaileak: Vanesa Polo, Saioa Hernández eta Isabel Relancio

Datak: ostegunetan, 2013ko azaroak 7tik abenduaren 12ra
(biak barne)

Orduategia: 16:00 - 17:30

Matrikula: 10 euro



Zoru pelbikoaren berrezte eta indartze lan hau ikuspuntu desberdinetatik abiatuko da gure gorputzaren ezagutza eta kontzientzia hartzea lortu nahi ditugularik. Hori guztia, mugimendua, esperimentazioa, eta behe - sabelaldearen energia - lanaren bitartez. **EZ DA LESIOAK SENDATZEKO EDO IKASTARO TERAPEUTIKOA**, prebentzio eta kontzientzia hartze ikastaroa baizik.



BASAURI BELDUR BARIK HERRIA-GAZTEEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK

PARTE HARTU ETA ZURE BELDUR BARIK JARRERA ERAKUTSI!

Info+: beldurbarikbasauri@gmail.com

BIDEO GRABAKETA ETA EDIZIO TAILERRA

Datak: 2013ko urriak 28, 29 eta 30

Orduategia: 17:30 - 20:00

Modu erraz eta PRAKTIKOAN, ikusentzunezko proiektuak sortzera bideratuta dagoen ikastaroa

STOP MOTION - TIME LAPSE BIDEOEN EDIZIO TAILERRA

Datak: 2013ko urriak 22, 23 eta 24

Orduategia: 18:00 - 20:00

Mota hauekako bideoak egiteko dauden programa eta aplikazio ezberdinak erabiltzen ikasiko dugu, euskarri elektronikoen ezberdinek duten sistemaren arabera tekniken garapenaren bitartez.



CLOWN TAILERRA

Datak: ostegunetan, 2013ko urriak 24tik hasita (12 saio)

Orduategia: 17:00 - 19:00

Tailer hauetan, bakoitzak barruan dugun Kolwna garatuko dugu, indarkeria sexistari aurre egiteko eta erantzuna emateko dauden estrategiak eta baliabideak bereganatuz.



ERAKUSKETAK

BISITA LIBREA EGITEKO ORDUTEGIA:
astelehenerdik ostegunera 9:30-14:30 eta
16 - 20:30 eta ostiralak 9:30-14:30



“BRASILEKO EMAKUMEAK PRESEN AURKAKO BORROKAN” ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzaileak: Mundubat GGKE, Brasileko presengatik eragina jasandakoen MAB erakundearen kolaborazioarekin.


Brasileko giza eskubideen gainean azpiegitura energetikoek duten eragina eta antolatutako emakumeen erresistentzien inguruko argazki erakusketa.

Erakusketa datak: 2013ko irailaren 9tik - 27ra



“DENBORAREN ITZALA” IDOIA BERATARBIDE ARRIETAREN ERAKUSKETA

Idoia Beratarbide Arrietaren ibilbideko garai ezberdinak islatzen dituzten lanak ikusi ahal izango dira erakusketa honetan, pintura, marrazki eta eskulturrekin. “Denboraren itzala” izenpean, Beratarbidek bere ibilbideari begirada luzatuko dio, etapa bakoitzeko ale bakanekin osatutako erakusketan. Edozein emakume, edozein pertsonarengan egon daitezkeen bizi-urratsak dira bertan topa daitezkeenak; denboraren itzalak funtsean guztiak, denborak utzitako arrasto iragankorrak, alegia. Atzera begira egindako bide honen aitzakian artistak lan berriak sortu eta erakutsiko ditu Marienean, gaurko sentsazioetatik abiatuta.



Erakusketa Datak: 2013ko urriaren 4tik azaroaren 13ra
Erakusketarekin erlazionatutako ekintza: urriak 17, 19:00etan San Fausto Jaiekin bat egiteko, erakusketako lanetan oinarritutako errezitaldia emango dute Marienean. Beratarbideren irudietatik abiatuta, errezitaldi dramatizatua eskainiko dute Metrokoadroka kolektiboko hainbat artista, aktore eta idazlek, egilearen beraren parte hartzearekin (euskaraz)



"INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO ERAKUSKETA GLOBALAK"

Antolatzailea: Mugarik gabe GGKE

Erakusketa hau Latinoamerikako, Estatuko eta Euskal Herriko erakunde feministen sentsibilizazio eta salaketa kanpainetan erabilitako goiburuekin eta karteekin osatu da. Erakusketan egindako hautaketak, oro har, indarkeria matxista mota ezberdinen forma eta espazio aniztasuna ikustarazten du, gaur egun gutxien ezagutzen diren horiei lehentasuna emanez. Era berean, indarkeria egoera horiei aurre egiteko zenbait estrategia azaltzen dira erakusketan.

Erakusketa datak: 2013ko azaroaren 15etik abenduaren 2ra

KONTUZ!

matxismoak hil egiten du

MARIENEA



"20.HAMARKADAKO AMAZONAK" ARGAZKI ERAKUSKETA "BASAURI BELDUR BARIK HERRIA" KANPAINAREN BARNEAN.




Emakume askok 20. hamarkadan sistema heteropatriarkala irauliko zuen diskurtso feminista sortu zuten. Emakumeontzako urrezko garaia izan zen, non jabekuntza prozesuak sormen eta sorkuntza oparoa ekarri zuen. Beraien bizitzeko eta janzteko moduarekin jendartea irauli egin zuten. Sexu eta genero kategoriak zalantzan jarriz, oraindik egiteke dagoen iraultza feministarako oinarriak ezarri zituzten. Lan honen bitartez, memoria historikoa egin nahi dugu, beraien biografia gaur hona ekarriz. Emakume iraultzaile haienganako omenaldia izan dadin.

Erakusketa datak: 2013ko azaroaren 15etik abenduaren 2ra.

MARIENEAKO 2014 URTEKO EGUTEGIAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

2014 urteko Marieneako egutegia Basauriko herritarrek, eta bereziki emakumeek, sortutakoa izan da. Mugimendu feministaren historian esanguratsuak izan diren ekintzak, pertsonaiak eta momentuak irudikatu izan dira eta argazki guztiekin, egutegia egin izan dugu. Honekin bat, erakusketa antolatu da, argazkiekin eta sormen prozesu guztia biltzen duen bideo eta formatu ezberdinetako euskarriekin.



Erakusketa data: 2013ko abenduaren 4tik 2014ko urtarrilaren 8ra

Inaugurazio data: 2013ko abenduak 10, 19:00etan, egutegiaren sortzaile eta protagonistekin batera.



PUBLIKO GUZTIEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK

JABEKUNTZA ERRETRATUAK - SAREAK EHUNTZEN EUSKADI ETA PALESTINAKO EMAKUMEEN ARTEAN

Data: 2013ko irailak 19

Ondu: 19:00

UNRWA Euskadi eta Garapenerako LanKidetzaren Euskal Agentziak, Euskadi eta Palestinako emakumeen arteko Jabekuntza Erretratuak proiektua jarri dute martxan, Euskadiko elkarte feministen eta Palestinan errefuxiatuak dauden emakume elkartearen artean elkartasun sareak sortzeko helburuarekin. 2013ko ekainean, Euskadiko ordezkaritza Palestinara bidaiatu zen, Cisjordania eta Gazara, hain zuzen. Tailer honetan, ordezkaritza honetako Kideak diren emakume batzuk izango ditugu gurekin, besteak beste, Marienea Basauriko Emakumeen Etxearen izenean dagoen Maria Apellaniz. Palestina eta Euskadiko emakumeen artean ehuntzen ari diren sare eta lan kolektiboaren inguruan mintzatuko dira: bisitatu zituzten elkarteak eta beraien aldarnikapenak. Herri horrek eta hango emakumeek pairatzen duten zapalkuntza basatiaren gainetik, transmititu duten indarra eta baikortasuna ere kontatuko digute irudi, musika eta janari tipikoaren bitartez.



"MUJERES EN EL CIE. GÉNERO, INMIGRACIÓN E INTERNAMIENTO" LIBURU AURKEZPENA, MARGARITA MARTINEZ ESCAMILLAREKIN

Data: 2013ko azaroak 21

Ordua: 19:00

Liburuak, egoera juridiko ezberdinak aztertzen ditu, atzeritarrei, eta bereziki emakumeei, Atzeritarren Barneratze Zentroetan askatasuna kentzearen arrazoiak, alegia. Erabilitako metodologiak ondorio batzuetara heltzea laguntzen gaitu, adibidez, atzeritarren gehiengoa delituren bat egiteagatik barneratua izan delakoaren diskurtso nagusiaren aurrean, emakumeen barneratze kasuetan %6,6a baino ez dagoela portaera deliktiboekin erlacionatuta baieztatu ahal izan da. Honekin batera, pertsonen trataren biktimen presentzia CIEtan, nazioarteko babesa eskatzen dutenena zein errotutako emakumeena, edo are gehiago, espainiar Estatuan jaiok izan diren seme-alabak dituzten emakumeena, agerian uzten du - CIEek ezkututzen duten giza tragediaz gain - proportzionaltasun printzipioan eta barnerapenaren salbuespen izaeran oinarritutako berme juridikoak ez direla dagokien moduan aplikatzen ari.



EGUN ESANGURATSUAK ETA TOPAKETAK

Irailak 28: Eskubide Sexual eta Erreproduktiboen Nazioarteko Eguna.

Azaroak 25: Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna.

Abenduak 1: Hiesaren Aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna.

Abenduak 10: Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna.



Eta Urriaren 11tik 20ra **BASAURIKO SAN FAUSTO JAIAK!!!**

Urriak 15: Emakumeen Janaria, Solabarria Plazan 14:30etan. Bazkarian parte hartzeko tiketa erosteko epea: Irailaren 23tik Urriaren 9ra **MARIENEAN**

AZARDAK 30 "BASURI BELDUR BARIK HERRIA" TOPAKETA. Hurrengo hilabetetan informazio gehiago!!!

BELDUR BARIK